

**INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA****6131**

AGINDUA, 2008ko urriaren 22koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, Euskal Ekonomia Erkidegoan, kultura ekintzailea hedatu eta enpresen aldeko joerak sustatzeko ekintzetarako laguntzak ematea arautzen duena.

Enplegurako europar estrategiako lau oinarrietarik bat da kultura ekintzailea garatzea. Izan ere, ekintzaitasunak lagundu egiten du enplegua sortzen eta bai ekonomia hazten ere, hain justu ere enpresa berriak sortuaz, eta horretaz gain, enpresa-bilbearen lehiakortasuna hobetzen du, dagoen lehiarako presioa areagotuz hobetu ere.

Bestalde, enpresen dinamismoak Europako Batasunarentzat duen interesa ondokoetan agertu zen: enpresen aldeko Liburu Berdean, eta Ekintza Plana martxa jartzean, azken honek dituen eremu politiko estrategikoetan honakoak daude: enpresa-mentalitatea sustatzea, eta ahalik eta jende gehien, batetik, animatu ekimenak hastera zein enpresak sortzera, eta, bestetik, lehiari eta hazkunderari dagokienez orientatu. Halaber, Europako Kontseiluaren 2005eko azken gomendioek eta zuzentzarauk zehazten dutenez, Lisboako Estrategia bultzatu nahi da eta bai Europaren hazkunde-gaitasuna areagotu ere; aipatu zuzentzarauon artean da 15.ena, enpresaren aldeko kultura sustatu eta ETEentzako aldeko ingurunea sortzeko dena.

Kultura ekintzailea hedatu eta enpresen aldeko joerak sustatzeko ekintzen artean da: Pertsona Ekintzailearen Eguna, Eurocities delakoak proposatu eta Europako Batzordeak lagundutakoa eta urteroko zita bihurtu eta helburu hauek dituen: Europan zehar, ekimen-zalatasuna bultzatzea, eta pertsona ekintzaileen ahalegina, ekarpena eta kemena aitortzea.

Herritarrengan eragin handiagoa izatearren, garpen-agentziek ekimen honetan era koordinatuan parte hartzea aurreikusi dute, baina eutsi egiten zaio tokian tokiko protagonismoari, hain justu ere Europan, hainbat hiritan garatu da, bestek beste, Ámsterdam, Dublín, Edinburgo, Frankfurt, Bartzelona, Madril edo Sevillan.

Ingurune ekonomikoak eta lan-merkatuak bilakae-
ra azkarra izan dute, aldaketa kulturek, gizartekoek, teknologikoek eta mugikortasunekoek eragindakoa. Eta horrek, eragile sozialak politika berriak diseinatzera sustatzen ditu, hain justu ere pertsonengan eta erakundeetan aldaketaren aldeko jokabidea sustatzeko, eta

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO****6131**

ORDEN de 22 de octubre de 2008, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula la concesión de ayudas para la realización de acciones de extensión de la cultura emprendedora y fomento del espíritu empresarial en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El desarrollo de la cultura emprendedora es uno de los cuatro pilares fundamentales de la estrategia europea para el empleo. Esto se debe, entre otras razones a que el espíritu emprendedor contribuye a la creación de empleo y al crecimiento económico mediante la creación de nuevas empresas y además favorece la mejora de la competitividad del tejido empresarial al aumentar la presión competitiva existente.

Asimismo, la importancia y el interés que tiene el dinamismo empresarial para la Unión Europea se vio reflejado en la publicación por parte de la Comisión Europea del Libro Verde a favor del espíritu empresarial, y en la puesta en marcha de un Plan de Acción, entre cuyos ámbitos políticos estratégicos se encuentra: fomentar la mentalidad empresarial, animar a un mayor número de personas a emprender, crear empresas y orientarles hacia el crecimiento y la competitividad. Del mismo modo, las últimas recomendaciones y directrices del Consejo Europeo (2005), que pretenden dar un nuevo impulso a la Estrategia de Lisboa e incrementar el potencial de crecimiento de Europa, incluyen, entre otras, la directriz n.º 15 dirigida a promover la cultura empresarial y crear un entorno favorable para las Pymes.

Entre las acciones de extensión de la cultura emprendedora y fomento del espíritu empresarial se encuentra el Día de la Persona Emprendedora, iniciativa propuesta por Eurocities y apoyada por la Comisión Europea, que se ha convertido en una cita anual cuyo objetivo es potenciar el espíritu emprendedor y reconocer el esfuerzo, la contribución y la valentía de las personas emprendedoras a lo largo de toda Europa.

Al objeto de lograr un mayor impacto en la ciudadanía, las agencias de desarrollo han previsto participar de forma coordinada en esa iniciativa, manteniendo no obstante el protagonismo de lo local, en línea de lo que, en el marco europeo, se desarrolla en una pluralidad de ciudades, tales como Ámsterdam, Dublín, Edimburgo, Frankfurt, Barcelona, Madrid o Sevilla.

La rápida evolución que está experimentando el mercado de trabajo y el entorno económico, motivada por cambios culturales, sociales, tecnológicos y de movilidad, impulsa a los entes sociales a diseñar nuevas políticas dirigidas a promover en las organizaciones y personas una actitud proactiva al cambio y a propiciar

beharrizan berriei egokitzeko estrategiak sortzea bultzatzeko.

Ildo horretan, beharrezkoa da: zenbait eremutatik hainbat jarduera batzea, eta hartarako, egiten da laguntzetarako deialdi hau, betiere Autonomia Erkidegoko tokian tokiko agenteengan kultura ekintzailea sustatzeko, eta ez bakarrik enpresen ingurunean (merkatuen globalizazioa, nazioarteratzea, aurrerakuntza teknologikoak, sozialak eta antolakundeetakoak), ezpada pertsonengan ere (beste profil eta beste gaitasun batzuk).

Hori dela eta, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Agindu honen helburua da ekimen-zaletasuna aitortu eta bultzatzea, betiere garapen ekonomikoaren motore, enplegu sortzaile eta Gizarte kohesio-egilea izan dadin.

Eta guzti horren arabera, EAEn eta Pertsona Ekintzailearen Egunaren markoan, batetik, kultura ekintzaileri dagokionez sustapen eta sentsibilizazioko ekintzak sustatzeko eta, bestetik, enpresen aldeko joerak sustatzeko emango dira diru-laguntzak.

2. artikulua.— Diru-baliabideak.

1.— Aurreko artikuluan adierazitako helburura zuzendutako ekonomia-baliabideek sorburu hau izango dute: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak. Aurrekontu-ekitaldian guztira emango diren laguntzen zenbatekoak ez du diru-izendapen hori gaindituko, edo, baldin eta, indarrean dauden legeen arabera, aurrekontuetan aldaketak onartzen badira, ez du zenbateko hori eguneratuta sortzen den emaitza gaindituko. Horrelako egoerarik gertatuz gero, horren berri eman beharko da, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen ebazpen bidez.

2.— Aurkeztutako laguntza guztien esleipena ekitaldi baten egingo da, lehiaketa-teknika erabili gabe, izan ere, ondoko helburua duen programa bat baita: onuradun izateko agindu honetan eskatutako betekizunak konplizten dituztenei laguntzak ematea, baldin eta eskabideak eraz eta sasoz egin badituzte. Agindu honetako 5. artikuluan ezarritako zenbateko eta portzentajeari dagokionez egindako eskabideei aurre egiteko, aipatu laguntzen finantzaketari lotutako aurrekontu-kredituak behar hainbatekoak ez badira, haien arteko hainbanaketa egingo da; hartarako kalkulua egiteko, betiere, honako honetan oinarrituta: aipatu 5. artikuluaen arabera kalkulaturako diru-laguntza teorikoaren zenbatekoan, alegia.

3. artikulua.— Erakunde onuradunak.

1.— Agindu honetan zehaztutako laguntzak ondokoek jaso ahal izango dituzte: EAEko udalak, mankomu-

la creación de estrategias que permitan la adaptación a las nuevas necesidades.

En este contexto, es por tanto necesaria, la conjunción de una serie de actuaciones, desde diferentes ámbitos, para lo cual se promueve la presente convocatoria de ayudas con el objetivo de incentivar a las agencias locales de la Comunidad Autónoma a contribuir con el objetivo de extender la cultura emprendedora, no sólo en el entorno empresarial (globalización de mercados, internacionalización, avances tecnológicos, sociales y organizacionales), sino también en las personas (nuevos perfiles y nuevas competencias).

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

La presente Orden tiene por objeto reconocer e impulsar la iniciativa emprendedora como motor de desarrollo económico, creador de empleo y cohesionador social.

De acuerdo con ello, se concederán ayudas económicas para apoyar las acciones de sensibilización y promoción de la cultura emprendedora y fomento del espíritu empresarial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el marco del día de la Persona Emprendedora.

Artículo 2.— Recursos Económicos.

1.— Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El volumen total de las ayudas a conceder dentro del ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

2.— La adjudicación de todas las ayudas presentadas se realizará de una sola vez, en un mismo acto, sin utilizar la técnica concursal, por tratarse de un programa cuya finalidad es otorgar ayudas a quienes habiendo formulado sus solicitudes en tiempo y forma, cumplan los requisitos exigidos en la presente Orden para ser entidades beneficiarias. A tal efecto, si en una determinada convocatoria las disponibilidades presupuestarias vinculadas a la financiación de la misma resultaran insuficientes para atender las peticiones formuladas en el porcentaje establecido en el artículo 5 de la presente Orden, se procederá a su prorrateo entre las mismas tomando como base para su cálculo el importe de la subvención teórica calculada según el expresado artículo 5.

Artículo 3.— Entidades Beneficiarias.

1.— Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden los Ayuntamientos, Mancomunidades

nitateak edo toki zein eskualdeetako garapen-agentziak, Euskal Garapen Agentzien Elkartean integratuak, eta Euskal Garapen Agentzia bera.

2.– Aipatu laguntzak jaso ahal izateko, agindu hone-tako 8. eta 9. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute eskabide-egileek.

3.– Agindu honek arautzen dituen laguntzak esleitu, eta, hala dagokionean, ordaindu aurretik, buruturik egon behar dira: Euskal Autonomia Erkidegoaren Ad-ministrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomo-ek antzeko laguntzak edo diru-laguntzak enpresa horiei itzularazteko edo haien zioz zehapenak ezartzeko orain-dik izapidetze-fasean dauden prozedura guztiak.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Euskal gizarte osoan, kultura ekintzailea sustatzeko jarduerak lagun daitezke diruz, betiere Pertsona Ekin-tzailearen Egunaren markoan burutzen badira.

Ondorio horietarako, besteak beste, hauek lagundu daitezke diruz:

a) Komunikazio- eta zabalkunde-ekintzen bidez eki-men-zaletasuna sustatzea.

b) Ekintzaitzari lotutako kultura eta baloreak sustatzeko material inprimatu eta ikus-entzunezkoak editatzea.

c) Topaguneak sortzea (ateak zabalik direneko jardunaldia, mahainguruak, txostenak, formazio-lantegiak etab.), hain justu ere pertsona ekintzaileekin, betiere horien ezagutzak, esperientziak eta estrategia berriak konpartitzeko.

d) TICak erabiliaz, ekintzaitzarako espazioak sor-tzea.

e) Sormena eta negozio-aukera berriak bilatzea.

f) Aitortza-ekintzak antolatzea eta bai lehiaketak eta enpresa-proiektuentzako sariak entregatzea ere.

g) Euren enpresa-proiektuak hasi eta arrakastaz sendotu ditzaten, informazioa eta aholkularitza eskain-tzea.

h) Enpresarien irudia sendotzea eta enpresa-boka-zioak agerraraztea.

i) Aurreko puntuetariko baten sartzen ez diren jarduera, baina Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zu-zendaritzaren arabera agindu honetan aurreikusitako helburua betetzen laguntzen dutenak.

5. artikulua.– Laguntzen modalitateak eta zenba-tekoak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak itzuli be-harrik gabeko diru-laguntzak dira.

u otras Agencias de desarrollo local o regional de la Comunidad Autónoma del País Vasco integradas en la Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo, así como la propia Asociación Vasca de Agencias de Desarrollo.

2.– Para poder acceder a las mencionadas ayudas, las solicitudes deberán cumplir lo dispuesto en los artículos 8 y 9 de la presente Orden.

3.– La concesión y, en su caso, el pago de las ayu-das reguladas en la presente Orden, quedarán condi-cionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma natu-raleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 4.– Actividades subvencionables.

Serán susceptibles de ser subvencionadas todas aquellas actividades que tengan por objeto el fomento de la cultura emprendedora en toda la sociedad vasca y que se realicen en el marco del Día de la Persona Emprendedora.

A dichos efectos se entenderán, entre otras, como ac-tividades subvencionables:

a) Fomentar la iniciativa emprendedora mediante acciones de comunicación y difusión.

b) Editar materiales impresos o audiovisuales para promover la cultura y los valores asociados al empre-nizaje.

c) Generar espacios de encuentro (jornadas de puer-tas abiertas, mesas redondas, ponencias, talleres forma-tivos, etc.) con personas emprendedoras para compartir sus conocimientos, experiencias y nuevas estrategias.

d) Crear espacios de emprendizaje mediante el uso de las TICs.

e) Estimular la creatividad y la búsqueda de nuevas oportunidades de negocio.

f) Organizar actos de reconocimiento, concursos y entrega de premios a proyectos empresariales.

g) Asesorar e informar a personas para que inicien sus propios proyectos empresariales y los puedan con-solidar con éxito.

h) Fortalecer la imagen del empresariado y despertar vocaciones empresariales.

i) Aquellas otras actividades no encuadradas en algu-no de los anteriores puntos pero que a juicio de la Di-rección de Promoción de Actividades Emprendedoras contribuyan al cumplimiento del objetivo previsto en la presente Orden.

Artículo 5.– Modalidad y cuantía de las ayudas.

1.– Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de subvenciones no reintegra-bles.

2.– 4. artikuluan ezarritako jarduerak exekutatzearen ondoriozko gastu garbi onartuaren % 80raino heldu daiteke laguntzen zenbatekoa.

3.– Edozelan ere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren ekarpenaren muga izango dira laguntza hauek, eta aurrekontutako aurrekontuez harago doan ezein zenbateko ordaintzea enpresa onuradunaren kargura izango da. Hasieran aurreikusitakotik beherakoa bada exekutatuak guztizko gastua, sail honek emandako laguntzaren zenbatekoa berregokitu egingen da.

4.– Onartutako gastu garbia zenbatzeari dagokionez, honakook kontsideratuko dira:

– Egingo den jardueraren sustapena eta zabalkundea egiteko gastuak.

– Jardueraren euskarria izateko dokumentazioa edo beste material batzuk editatzekoak.

– Txostengileak kontratatzeak.

– Pertsona Ekintzailearen Egunari lotutako ekintzak kudeatu eta gauzatzeari egozteko diren pertsonal-gastuak.

– Arrunta den beste edozein, baldin eta jarduera burutzeari zuzen lotua bada, kanpoan direlarik entitate eskatzailearen eguneroko jarduera arruntarenak.

Balio erantsiaren zerga edo beste batzuk direla-eta aurre egin behar zaien zenbatekoak ez dira sartzen diruz laguntzekoak direnen artean, salbu eta ezin badira jasanarazi.

6. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Laguntza hauek ematea bateragarria da beste edozein laguntza edo diru-laguntza eskuratzearekin, horien izaera edo ematen dituen administrazioa edozein delarik ere, salbu eta, agindu honetako 1. artikuluan zehaztu helburu betetzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak ematen dituenak.

Jasotako laguntzek eta agindu honen ondoriozkoek, batuta, ezin izango dituzte gaintitu: Europako Erkidegoaren araudian aurreikusitako laguntzak metatzeari doazkion mugak. Inola ere ezin izango dute gaintitu agindu honen bidez diruz lagundutako jardueraren kostua.

2.– Jasotako laguntzaren eta diru-laguntzen zenbateko guztizkoa onartutako jardueraren aurrekontutik gorakoa bada, emango den laguntza muga hartatik gora egiten duen zatiaz gutxituko da.

3.– Eskatzaileen artean enpresak badira, Itunaren 87. eta 88. artikuluen aplikazioari dagokionez 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko Erregelemduan ezarritako «minimis» arauak errespetatu beharko dira. Artikulu horiek: Europako Batasunaren markoan, minimis laguntzei eta edo arlo honetarako emandako

2.– El importe de las ayudas podrán alcanzar hasta el 80% del gasto neto admitido derivado de la ejecución de las actividades establecidas en el artículo 4.

3.– Estas ayudas serán, en todo caso, el límite máximo de aportación del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, corriendo a cargo de cada entidad beneficiaria el pago de cualquier cantidad que exceda del presupuesto presentado. En el supuesto de que el gasto total ejecutado sea inferior al inicialmente previsto, se reajustará el importe de la ayuda concedida por este Departamento.

4.– A efectos del cómputo del gasto neto admitido se considerarán:

– Los gastos de promoción y difusión de la actividad a realizar.

– Los de edición de documentación u otro material soporte de la actividad.

– Los de contratación de ponentes.

– Los gastos de personal directamente imputables a la gestión y realización de las acciones relacionadas con el Día de la Persona Emprendedora.

– Cualquier otro gasto corriente directamente imputable a la realización de la actividad, excluidos los de la actividad corriente diaria de la entidad solicitante.

No se considerarán como gastos subvencionables las cantidades soportadas en concepto de Impuesto sobre el Valor Añadido, salvo que no pueda ser repercutido, u otros impuestos.

Artículo 6.– Compatibilidad con otras ayudas o subvenciones.

1.– La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de ayudas o subvenciones, cualesquiera que sean su naturaleza y el órgano o Administración que las conceda, con excepción de las otorgadas por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social para la consecución del objeto señalado en el artículo 1 de la presente Orden.

Las ayudas recibidas, acumuladas a las derivadas de la presente Orden, no podrán sobrepasar los límites sobre acumulación de ayudas previstos en la normativa comunitaria. En ningún caso podrán superar el coste de la actividad subvencionada por la presente Orden.

2.– En el caso de que el importe total de la suma de las diferentes ayudas y subvenciones obtenidas sea superior al presupuesto de actividad que resulte aprobado, la ayuda a conceder se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.

3.– En el supuesto de que entre los solicitantes se encuentren empresas, se deberán respetar las reglas de minimis establecidas en el Reglamento (CE) n.º 1998/2006 de la Comisión de 15 de diciembre de 2006 relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del tratado CE a las ayudas de minimis u otras directrices o disposiciones

beste xedapen eta zuzentarau batzuei aplikatzekoak dira. Egun, enpresa jakin bati emandako minimis laguntzaren guztikoa ez da izango 200.000 eurotik gorakoa, hiru ekitaldi fiskaletan. Helburua zein laguntza-era edozein delarik ere, muga hori aplikatu egingo da.

7. artikulua.– Prozedura hastea.

Agindu honek araututako laguntzak urtean behin egingo diren deialdien bidez iragarriko dira, eta publikitate, lehia, objektibotasun eta berdintasunaren printzipioei jarraituz emango dira.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen ebazpen baten bidez egingo da deialdia, bertan ondokoak zehaztuta: deialdi horretan, diru-laguntzak emateko aurrekontu-zuzkidura zenbatekoa den; eskaerak aurkezteko epea eta lekuak; eta eskaera-ereduak eskuratzeko lekuak.

8. artikulua.– Eskabideak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko, Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzari zuzendutako eskabide bat aurkeztu beharko da, hain justu ere deialdia egiteko ebazpenean zehaztutako lekuetan edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan zehaztutako lekuetan, betiere Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearen ebazpenak, urteko laguntzetarako deialdia arautzekoak, ezarritako epean.

9. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, hauxe:

a) Egingo diren ekintzen gaineko memoria deskriptiboa, non puntu hauek sartuko diren:

– Helburuak.

– Zein pertsonarentzat izango den.

– Eskabidea aurkezten den ekonomia-ekitaldian zehar, garatu diren edo egitea aurreikusten diren jarduera edo ekimenen edukiaren gaineko detaileak.

– Aipatu jarduerak garatzeko beharrezko diren materialen eta giza baliabideen gaineko detaileak.

– Kasu bada, proposatutako jardueretan genero ikuspegia nola txertatu, detaileak.

– Egutegia.

– Aurkeztu den proiektuaren justifikazioa, eta bai laguntzaren zenbatekoa eta beharra ebaluatzeko egoki irizten zaien edozein elementu.

b) Ekitaldiko aurrekontua, jarduerako gastuak banaturik jasoko dituen.

c) Beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik jasotako laguntzei buruzko zinpeko aitortpena, betiere zenbatekoak zehaztuaz.

emanadas al efecto en el marco de la unión Europea. Actualmente la ayuda total de minimis concedida a una empresa determinada no será superior a 200.000 euros durante cualquier periodo de tres ejercicios fiscales. Este límite se aplicará independientemente de la forma de ayuda o el objeto perseguido.

Artículo 7.– Iniciación del procedimiento.

Las ayudas reguladas por esta Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia, objetividad e igualdad.

La convocatoria se realizará por Resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial y en la misma se determinará el importe de la consignación presupuestaria destinada para el otorgamiento de las subvenciones en ese ejercicio, el plazo y lugares para la presentación de solicitudes y los lugares donde obtener un modelo de solicitud.

Artículo 8.– Solicitudes.

Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en la presente Orden se formularán en instancia dirigida a la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras, y deberán presentarse en los lugares especificados en la resolución de convocatoria, así como en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo que fije la resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial reguladora de la convocatoria de ayudas anual.

Artículo 9.– Documentación a presentar.

1.– La documentación que acompañará a la solicitud será la siguiente:

a) Memoria descriptiva de las acciones a realizar en la que se contemplen los siguientes puntos:

– Objetivos.

– Personas destinatarias.

– Detalle del contenido de las actividades e iniciativas desarrolladas o previstas realizar durante el ejercicio económico en el que se presenta la solicitud.

– Detalle de materiales y medios humanos necesarios para desarrollar las citadas actividades.

– Detalle del modo en que se prevé incorporar la perspectiva de género en las actividades propuestas, en su caso.

– Calendario.

– Justificación del proyecto que se presente, así como cualquier elemento que se considere de utilidad para evaluar la necesidad y el importe de la ayuda.

b) Presupuesto del ejercicio que incluirá el desglose de gastos por actuación.

c) Declaración jurada de las ayudas solicitadas o percibidas de otras instituciones públicas o privadas, con indicación de las cuantías.

d) Kasu bada, eraketa-eskrituraren, estatutuen eta merkataritza erregistroko inskripzioaren fotokopia.

e) Eskabidea egin behar duen pertsonaren ahalordetzaren fotokopia.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako diru-laguntzen onuradunek zerga-obligazioak betetzen dituztela egiaztatzeari dagokionez, Ogasun eta Finantza sailburuak 1991ko urriaren 7an emandako Aginduan edo, horren orde, indarrean jartzen den arautegian adierazitako egoerak gertatzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, eskatzaileak berariaz horretarako baimena ematen badu, diru-laguntzen eskatzaileek zerga-obligazioak beteta dituztela egiaztatzeko ziurtagiria egiteko eskatuko die zuzenean zerga-arloan eskudun diren organoei. Espedientean ez bada aipatu baimen berriazkoa, entitate eskatzaileek ziurtagiri egokia aurkeztu beharko dute, baldin eta salbuetsiak ez badira, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 200ko maiatzaren 12ko Aginduan xedatutakoaren arabera egon ere.

g) Laguntza edo diru-laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdua, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez izatearen gaineko zinpeko deklarazioa, erakunde eskatzaileak egindakoa, eta, halaber, inhabilitatzen duen ezein legezko debekurik izatearen gainekoa, horren barruan honakoak direla: Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela-eta, sexuaren inguruko diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak.

Gehenez ere, hiru urte lehenago aurkezturik izaneko gero, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren esku diren eta indarrean diren dokumentuak aurkeztea ez da izango beharrezkoa. Horrelakoetan, baina, eskabidean adierazi beharko da zein egunetan eta zein organo edo erakundetan aurkeztu ziren agiriok, betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35 artikuluko f) idatz-zatian ezarritako zehaztapen eta betekizunekin bat.

2.- Entitate eskatzaileak zinpeko adierazpenean gezurrezko daturen bat jartzen badu, administrazio-zigorrek eta zigor penalak ezarri ahal izango zaizkio, indarrean dagoen zigor-araubideari jarraituz.

10. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan egindako akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako dokumentazioan Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzak okerren bat, zehaztasun faltaren bat edo omisioren ikusten badu, eskatzaileari jakinaraziko dio horren berri, eta 10 eguneko epea emango dio zuzendu beharrezkoa zuzentzeko. Eta, gainera, jakinaraziko dio eskabidea bertan behera utzitzat joko dela, baldin epe horretan zuzenketak aurkezten ez baditu. Epe hori igarota, zuzenketak egin ez badira, eskabidea bertan behera geratu dela adierazteko ebaz-

d) En su caso, copia de la escritura de constitución, estatutos y su inscripción en el Registro Mercantil.

e) Fotocopia del poder de representación de la persona solicitante.

f) Cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los beneficiarios/as de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi siempre que cuente con autorización expresa de la parte peticionaria, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los/as solicitantes de las ayudas y subvenciones. En el supuesto de que no constase en el expediente la citada autorización expresa, las entidades solicitantes deberán aportar el correspondiente certificado, salvo que se encuentren exentas según lo dispuesto en la Orden de 12 de mayo de 2000, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública.

g) Declaración jurada o responsable de la entidad solicitante de no hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

No será preceptiva la presentación de aquellos documentos vigentes que ya se encuentren en poder del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, presentados con una antelación máxima de 3 años. En este supuesto, se hará constar en la solicitud la fecha y órgano o dependencia en que se presentaron, en los términos y con los requisitos establecidos en el artículo 35.f) de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.- Si la entidad solicitante falseara cualquiera de los datos incluidos en la declaración jurada anteriormente mencionada se verá sometida al régimen sancionador, tanto administrativo como penal, vigente.

Artículo 10.– Subsanación de defectos en la solicitud presentada.

En caso de que la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras advirtiera la existencia de algún defecto, inexactitud u omisión en la documentación presentada lo comunicará a la parte solicitante, concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se dictará resolución declarando el desistimiento, de conformidad

pena emango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 42. eta 71.1 artikuluetan araututakoari jarraituz (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

11. artikulua.– Eskabideak aztertu eta ebaluatzea.

1.– Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio: aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Eskatutako diru-laguntza emateari edo ukatzeari dagokionez, berariazko txosten teknikoa bat emango da, betiere eskabiderako kalkulaturako zenbatekoa zehaztuaz eta bai diru-laguntza kalkulatzeari dagokionez onartutako gastuen zenbatekoa ere.

2.– Edonola ere, Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzak entitate eskatzaileari beste edozein agiri edo informazio osagarri eskatu ahal izango dio, beharrezkotzat jotzen badu, hark aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta tramitatu ahal izateko.

12. artikulua.– Laguntzak emateari buruzko ebazpena.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako txostena ikusita, Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko zuzendariak, aurkeztutako eskabideari baiezkota edo ezezkoa emateko ebazpena emango du, beharrezkoa bada, emandako laguntzen zenbatekoak ere finkatuko dituena.

Ebazpena emateko eta interesdunari jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da, dagokion deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.– Eskatzaileetako bakoitzari diru-laguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian onuradunen zerrenda eta emandako diru-laguntzen zenbatekoa argitaratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antola Arauei buruzko Legearen Testu Bategineko 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaz onartu zen testu bategin hori).

3.– Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako epea eta era errespetatuz.

4.– Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena) 44. artikuluan xedatutakoarekin bat, ebazpena emateko epea amaitu, eta interesdunari ez bazaio horren berri eman, laguntza-eskaera ukatu dela ulertu ahal izango da.

con lo establecido en los artículos 42 y 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 11.– Análisis y evaluación de las solicitudes.

1.– Corresponderá a la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas. Se emitirá un informe técnico expreso sobre la concesión o denegación de la subvención solicitada indicando su cuantía estimada, así como el importe de los gastos aprobados a efectos del cálculo de la subvención.

2.– En cualquier caso, la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras, podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada.

Artículo 12.– Resolución de concesión de ayudas.

1.– El Director de Promoción de Actividades Emprendedoras, a la vista del informe mencionado en el artículo anterior, dictará la resolución por la que se concede o se deniega la solicitud presentada, y el establecimiento, en su caso, de la cuantía de las ayudas concedidas.

La resolución deberá dictarse y ser notificada a la parte interesada en un plazo máximo de 6 meses contado desde el día siguiente a la publicación de la correspondiente convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Sin perjuicio de la notificación individual a cada solicitante de la resolución de concesión de ayuda, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de las entidades beneficiarias e importe de subvención concedida, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

3.– La resolución que recaiga no agotará la vía administrativa, pudiendo interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, en el plazo y forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, una vez transcurrido el plazo previsto para dictar la resolución sin que ésta se haya notificado a la parte interesada, podrá entenderse desestimada la ayuda solicitada.

13. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa.

Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio agindu honetan aurreikusten diren laguntzak kudeatzea, agindu honetan bertan, zenbait eginkizun beste organo batzuen esku uzten diren kasuetan izan ezik.

14. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzea eta ordaintzea.

1.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak egin ostean, edonola ere deialdiaren urteko abenduko 31 baino lehen, Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzaren aurrean honakoa aurkeztu beharko dute entitate onuradunek: laguntzak emateko ebazpenean ezarritako zehaztapenekin bat, onartutako jarduerak egin izanaren justifikazioa, hain justu ere jarduerak gauzatzeari buruzko memoria zehatza igorriaz, eta bai gastuen justifikazioa ere, hartarako, behin betiko fakturen fotokopia egiaztatuak aurkeztuta betiere.

Justifikazio-memorian honakoak jaso beharko dira: 9.a) artikuluan aipatutako puntuetakoak, aurreikusitako helburuen betetze-maila, eta sexuaren aldagaiaren ondoriozko datuen desagregazioa, posible den datuei dagokienez.

2.– Diru-laguntzak ondoren zehaztu bezala ordainduko dira:

– Ebazpena jakinarazi ostean, onartutako zenbatekoaren % 50 ordainduko da, betiere 15.a) artikuluan aurreikusitako epea igaro eta ukorik izan ez bada.

– Behin betiko kitapenerainoko gainontzeko diru-laguntza ordaintzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da: diruz lagundutako jarduerak gauzatu izana egiaztatzea posible egiten duena, eta, halaber, ezarritako helburuak noraino bete diren.

3.– Ogasun eta Finantza sailburuak 1991ko urriaren 7an emandako Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako diru-laguntzen onuradunek zerga-obligazioak betetzen dituztela egiaztatzei buruzkoa da. Horren harira, ordaintzeta izapidetzen den egunean, agindu horretan —edo horren orde, indarrean jartzen den araudian— adierazten diren egoerak gertatzen badira, agindu honen 9. artikuluko f) idatz-zatian ezarritako moduan egiaztatu beharko da aipatutako hori.

15. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Onuradunek hona betebeharrak dituzte:

a) Esleitutako diru-laguntza onartu beharko dute. Izan ere, diru-laguntza eman zaiola jakinarazteko agiria jaso eta hamabost eguneko epean, entitate onuradunak, beren-beregi eta idatziz, laguntzari uko egiten ez badio, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Artículo 13.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Orden, salvo aquellas cuestiones asignadas específicamente a otros órganos en la presente norma.

Artículo 14.– Justificación y Pago de la subvención.

1.– Las entidades beneficiarias, una vez realizadas las actuaciones subvencionables, y en cualquier caso, antes del 31 de diciembre del año de la convocatoria, deberán presentar ante la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras la justificación de la realización de las actuaciones aprobadas en los términos previstos en la resolución concedente, mediante la remisión de una memoria detallada de la realización de las actividades así como de la justificación de los gastos, mediante la aportación de fotocopia compulsada de las facturas definitivas.

En la memoria justificativa se deberá incluir, además de los puntos mencionados en el artículo 9.a), el grado de cumplimiento de los objetivos previstos y la desagregación por la variable de sexo de todos aquellos datos que así lo permitan.

2.– El abono de las subvenciones se realizará de la siguiente forma:

– Se procederá al pago del 50% del importe concedido, tras la notificación de la resolución, una vez transcurrido el plazo previsto en el artículo 15.a) sin haber mediado renuncia.

– Se procederá al abono de la subvención restante hasta la liquidación definitiva, previa presentación de la documentación justificativa que permita comprobar tanto la realización de las actividades subvencionadas como el grado de consecución de los objetivos perseguidos.

3.– Así mismo, en la fecha en que se tramite el pago, cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los/as beneficiarios/as de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o en la normativa que le sustituya, la referida acreditación se realizará en la forma establecida en el artículo 9.f) de la presente Orden.

Artículo 15.– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Las entidades beneficiarias estarán obligadas a:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención la entidad beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

d) Enpresa onuradunak, halakorik eskatzen bazaio, informazio osagarria bidali beharko du Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzara, beronek diruz lagundutako jardueren garapenaz eta burutzapenaz egoki irizitako egiaztapen guztiak egin ahal izateko.

c) Jasotako laguntzak fiskalizatzeko zereginak aurrera eramatearren, Ogasun, Ekonomia eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak edota Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen dieten informazio oro ematea.

d) Helburu berberarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik laguntza, diru-sarrerak edo baliabideak jasoz gero, horren berri ematea.

e) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo nahiz subjektiboren aldaketak jakinaraztea.

f) Laguntza zertarako esleitu den, xede horretarako erabiltzea.

g) Diruz lagundutako jardueren zabalkunde eta burutzapenari dagokienez, berariaz aipatzea: Eusko Jaur-laritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntza.

h) Diruz lagundutako jarduerak burutzerakoan, eus-kara eta gazteleraren erabilera bermatzea

i) Hizkuntzaren erabilera sexistatik ez egitea, eta komunikazio- eta hedapen-egintzetan, gizonezko eta andrazkoen presentzia orekatuarekin eta estereotiporik gabe erabiltzea irudiak.

16. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzak emateko orduan kontuan hartu ziren baldintzetan edozein aldaketa izanez gero, laguntza emateko ebazpena ere aldatu egin ahal izango da, betiere, arau honetan laguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak gordetzen badira. Beraziki aintzat hartuko dira honako aldaketa hauek: aldi berean, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batek emandako laguntza edo diru-laguntzaren bat jasotzea, edo helburu bererako beste diru-sarrera edo baliabiderik jasotzea.

Horri begira, Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako diru-laguntzen kopuruak berregokitzeko.

17. artikulua.– Ez betetzeak.

Onuradunak betetzen ez baditu agindu honetan ezarritako zehaztasunak; edo aurkeztutako datuak egiazkoak ez badira; edo emandako dirua, bere helbururako erabili beharrean, beste zerbitutarako erabili bada; orduan, Ekintzaileen Jarduerak Sustatzeko Zuzendaritzak berariaz horretarako hasitako espedientea izapidetuko du, eta interesatuari hamabost eguneko epea emango

b) Facilitar a la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras cuanta información complementaria le sea solicitada, para que ésta pueda realizar las comprobaciones que estime oportunas en relación con el desarrollo y ejecución de las actuaciones subvencionadas.

c) Facilitar cuanta información le sea requerida por la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, en el ejercicio de sus funciones de fiscalización respecto de las ayudas percibidas.

d) Comunicar la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente de cualesquiera Administraciones o entes tanto públicos como privados.

e) Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

f) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que ha sido concedida.

g) Hacer mención expresa de la colaboración y apoyo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, en la difusión y ejecución de las actuaciones subvencionadas.

h) Garantizar el uso del euskera y del castellano, a la hora de llevar a cabo actividades subvencionadas.

i) Hacer un uso no sexista del lenguaje y utilizar imágenes con una presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres, en todas aquellas acciones de comunicación y difusión que realicen.

Artículo 16.– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y en todo caso, la obtención concurrente de ayudas o subvenciones otorgadas por otras Administraciones o Entes públicos o privados y, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos por la norma subvencional para ser entidad beneficiaria de ésta.

A estos efectos, la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras dictará la oportuna resolución en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

Artículo 17.– Incumplimientos.

El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de los términos establecidos en la presente Orden, la falsedad de los datos presentados, la aplicación de la cantidad percibida para una finalidad distinta de la que motivó su concesión determinará previa tramitación del oportuno expediente incoado al efecto por la Dirección de Promoción de Actividades Emprendedoras y

dio, esan behar duena adierazteko, eta, ondoren, hala badagokio, onuradunak diru-laguntza galduko du, eta, bi hilabeteko epean, ordura arte jasotako diru-laguntzak eta legez dagozkien interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari; horrez gainera, legez egin litezkeen gainerako egintzak ere burutuko dira. Hori guztia halaxe izango da honako hauek oinarri hartuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren berme eta sarreraren erregimen orokorra arautzeko buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoa, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa, horren bidez onartu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antola Arauei buruzko Legeko testu bategina. Itzulitako kopuruak sarrera publikotzat joko dira legezko ondorio guztietarako.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Izapideak telematikoki egiteko prozeduraren bat garatzen bada, Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritakoari bat etorriaz eta hura erregulatzeko arauak argitaratu ostean, agindu honetan zehaztutako laguntzak prozedura horren bitartez izapidetu ahal izango dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 22a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

audiencia a la parte interesada por un periodo de quince días, la pérdida de la subvención y la obligación de reintegrar a la Tesorería General del Gobierno Vasco en el plazo de dos meses las cantidades percibidas, más los correspondientes intereses legales que correspondan, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, todo ello de acuerdo con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre sobre garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el artículo 53 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. Las citadas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos legales.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En el supuesto de que se desarrolle un procedimiento de tramitación telemática, de conformidad con lo establecido en la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos, una vez publicada la norma que lo regule, las ayudas contempladas en la presente Orden podrán tramitarse de acuerdo con el mismo.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 2008.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.